EGK-k GoaZen Koangresuaren arrakasta Eusko Jaurlaritzak egungo eta etorkizuneko belaunaldiekin hartutako konpromiso bihurtu nahi du.

- *Euskadiko Oraingo eta Etorkizuneko Belaunaldien Nazioarteko I. Kongresua egin ondoren, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak iragarri du lanean jarraituko duela belaunaldien arteko ikuspegia euskal politika publikoetan txertatzeko.*

Bilbo, 2026ko azaroaren 26a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) balantze positiboa egin du atzo Bilboko Euskalduna Jauregian ospatutako GoaZen, Euskadiko Oraingo eta Etorkizuneko Belaunaldien Nazioarteko I. Kongresuaren inguruan.

Jardunaldian ehun da hogei parte-hartzaile hartu zuten parte, nazioarteko erakundeetako, erakunde publikoetako, gazte-erakundeetako eta gizarte-eragileetako ordezkariekin batera. Hala, topagune eta hausnarketarako gune gisa sendotu zen, belaunaldi berriek erabaki publikoetan duten eginkizunari buruz gogoeta egiteko.

EGKren ustez, parte-hartze arrakastatsuak agerian uzten du gazteria-politiketatik harago doan eztabaida bat irekitzeko interesa dagoela: nola bermatu gaur hartzen diren erabakiek etorkizuneko belaunaldien aukerak eta eskubideak arriskuan jar ez ditzaten.

Kongresutik erakundeen konpromisoetara

Jardunaldian zehar, Nazio Batuen Erakundearen, Galesen eta Flandesen nazioarteko esperientziak partekatu ziren, besteak beste, eta belaunaldien arteko ikuspegia txertatuko duen gobernantza-eredu baterantz aurrera egiteko proposamenak landu ziren. EGKren iritziz, esperientzia horiek aukerak eskaintzen dizkiote Euskadiri, eta beharrezkotzat jotzen du Eusko Jaurlaritzarekin lan-agenda bat abiaraztea.

“GoaZen ezin da egun bakarreko topaketa batean geratu. Beste lurralde batzuetan dagoeneko funtzionatzen duten esperientziak ezagutu ditugu, eta Euskadik norabide horretan urratsak ematea nahi dugu. Gure hurrengo helburua lan hau Eusko Jaurlaritzari

helaraztea eta konpromiso zehatzak lortzea da", adierazi zuen Iratxe Uriarte, EGK-ko presidenta.

EGKren lehentasunen artean daude gazteengan eta etorkizuneko belaunaldiengan politika publikoek duten eragina ebaluatzeko mekanismoak garatzea, erakundeen erabakietan gazteen parte-hartzea indartzea eta elkarrizketarako gune egonkorrak ezartzea.

EGK-k hasitako lanari jarraipena emango dio

Kontseiluak Kongresuan jasotako ekarpenak sistematizatzeko lan egingo du, euskal erakundeei helarazi ahal izango zaien proposamen bat prestatzeko.

Era berean, EGK-k Eusko Jaurlaritzarekin bilerak egiteko ahalegina egingo du, ikuspegi hori politika publikoen plangintzan eta ebaluazioan txertatzea ahalbidetuko duten konpromiso eta lankidetza-bide posibleak aztertzeko.

"40 urte daramatzagu euskal gazteriaren eskubideak defendatzen. Datozen urteak ere etorkizuneko belaunaldiek beren etorkizuna markatuko duten erabakietan ahotsa izan dezaten bermatzeko baliatu nahi ditugu", esanez amaitu zuen EGK-k.

Informazio gehiago:

Mirene Gonzalez Uriarte

688675932 // 944436143

komunika@egk.eus

EGK quiere convertir el éxito de GoaZen en compromisos del Gobierno Vasco con las generaciones presentes y futuras

- *Tras la celebración del I Congreso Internacional de las Generaciones del Presente y del Futuro de Euskadi, el Consejo de la Juventud de Euskadi anuncia que continuará trabajando para incorporar la perspectiva intergeneracional a las políticas públicas vascas.*

Bilbao, 26 de noviembre de 2026. El Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) hace un balance positivo de la celebración de GoaZen, el I Congreso Internacional de las Generaciones del Presente y del Futuro de Euskadi, celebrado ayer en el Palacio Euskalduna de Bilbao.

La jornada, que reunió a ciento veinte participantes, contó con representantes de organismos internacionales, instituciones públicas, organizaciones juveniles y agentes sociales, consolidándose como un espacio de encuentro y reflexión sobre el papel de las nuevas generaciones en las decisiones públicas.

Para EGK, el éxito de participación demuestra el interés por abrir un debate que va mucho más allá de las políticas de juventud: cómo garantizar que las decisiones que se adoptan hoy no comprometan las oportunidades y los derechos de las generaciones futuras.

Del Congreso a los compromisos institucionales

A lo largo de la jornada se compartieron experiencias internacionales de Naciones Unidas, Gales y Flandes, entre otras, y se trabajaron propuestas para avanzar hacia una gobernanza que incorpore la perspectiva intergeneracional.

Desde EGK consideramos que estas experiencias ofrecen oportunidades para Euskadi y defienden la necesidad de abrir una agenda de trabajo con el Gobierno Vasco. "GoaZen no puede quedarse en un encuentro de un día. Hemos conocido experiencias que ya funcionan en otros territorios y queremos que Euskadi dé pasos en esa dirección.

Nuestro siguiente objetivo es trasladar este trabajo al Gobierno Vasco y conseguir compromisos concretos", señaló Iratxe Uriarte, presidenta de EGK.

Entre las prioridades de EGK se encuentran avanzar hacia mecanismos de evaluación del impacto de las políticas públicas sobre las personas jóvenes y las generaciones futuras, reforzar la participación juvenil en las decisiones institucionales y establecer espacios estables de interlocución.

EGK dará continuidad al trabajo iniciado

El Consejo trabajará en la sistematización de las aportaciones recogidas durante el Congreso para elaborar una propuesta que pueda trasladarse a las instituciones vascas. Asimismo, EGK buscará mantener encuentros con el Gobierno Vasco para estudiar posibles compromisos y vías de colaboración que permitan incorporar esta perspectiva a la planificación y evaluación de las políticas públicas.

"Durante 40 años hemos defendido los derechos de la juventud vasca. Queremos que los próximos años sirvan también para garantizar que las generaciones que vienen tengan voz en las decisiones que marcarán su futuro", concluyó EGK.

Más información:

Mirene González Uriarte

688675932 // 944436143

komunika@egk.eus